

Carmen Otegi Zabala

*Aduna,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea

Biografia



Adunako Olatza baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama Adunako Altxarte baserrikoa. Sei senidetan bosgarrena, 30 urterekin ezkondu zen 'Gure etxea' tabernara. Geroztik tabernan aritu zen lanean, sukaldean gehienbat. Herriko jendea zerbitzatzen urteak eman ditu, ermandadeen urteroko afariak prestatuz, Gabonetako bisigu-janak eskainiz... eta astean asteko bezeroak zerbitzatuz.

Zintak

ADU-007

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-09-15
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Odria, Haizea

Pasarteak

1. Umetako jolasak

- **Erref:** ADU-007/003
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:02:12. **Bukatu:** 00:03:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Inguruko baserrietako umeekin jolasten zuten. Sokasaltoan edo tomate potoekin gordeketan jolasten zuten. "Zazpi xolomo" harrapaketa jolasa.

2. Garai bateko panpinak

- **Erref:** ADU-007/004
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:03:58. **Bukatu:** 00:05:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Aitak Santo Tomasetan erositako kartoizko panpinak oparitzen zizkien errege egunean. Bestela beraiek egindako trapuzko panpinak zeuzkaten.

3. Etxean egindako pilotak

- **Erref:** ADU-007/005
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:05:21. **Bukatu:** 00:07:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Pilotak etxean egiten zituzten. Kortxoak hariarekin forratu eta josi egiten zuten. Neskek eta mutilek jolasten zuten pilotan. Gizon batek eskolan burla egiten zion jolasean ibiltzeagatik.</p>

4. Eskolan ia dena gazteleraz

- **Erref:** ADU-007/006
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:07:49. **Bukatu:** 00:10:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

Adunako eskola udaletxe azpian zegoen. Dena gazteleraz ikasten zuten. 'Cara al sol' kantatu behar izaten zuten eta Francoren argazkiak zeuden edonon. Aitagurea ere erreztatzen zuren sartzerakoan eta irteterakoan, baina euskaraz egiten zuten. Dotrina gazteleraz izaten zuten eskolan eta handik irtenda sakristian euskaraz ematen zuten apaizarekin.

5. Azkenerako etxean ere gazteleraz

- **Erref:** ADU-007/007
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:10:53. **Bukatu:** 00:13:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Eskolan gazteleraz ikasten zuten, baita dotrina ere, baina apaizarekin euskaraz ematen zuten. Gazteleraz ez zekiten ongi, baina azkenerako etxean ere egiten hasi ziren ahizpen artean. Eskolan nahiz kalean erdaraz egiteko egintzen zieten.

6. Eskolako gaiak eta materialak

- **Erref:** ADU-007/009
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:14:07. **Bukatu:** 00:17:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Historia sakratua ematen zuten eskolan. Entziklopedia bat zeukaten ikasteko. Ikasmahaiak tintarentzat zuloa izaten zuten eta lumarekin idazten zuten koadernoan. Orbanak kentzeko paper sekantea erabiltzen zen.

7. Umetan mutil bati esandako lotsagabekeria

- **Erref:** ADU-007/010
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:17:22. **Bukatu:** 00:18:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Eskolako mutil bati gaiztakeria bat esan eta korrika alde egin zutenekoa.

8. Dotrina txintxo ikasi behar

- **Erref:** ADU-007/011
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:18:54. **Bukatu:** 00:21:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Dotrinara txintxo joan behar izaten zuten. Apaiza jatorra zen. Behin zigortuta utzi zituen sakristian eta leihoko kristala hautsi zuten. Ahizpak ekarri zuen kristal berria. Dotrina euskaraz izaten zen eta etxean ere erakusten zieten. Berak ilobei erakutsi zien.

9. Apaizaren galdera tranpatia

- **Erref:** ADU-007/012
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:21:21. **Bukatu:** 00:23:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Garizuman txartel bila joan behar izaten zen; apaizak dotrina galdetzen zien txartela lortzeko. Behin galdera tranpatia egin zion eta oraindik gogoan du: Jesukristo ze ordutan hil zen.

10. Jaunartzea egiteko ikasi behar izaten zituztenak

- **Erref:** ADU-007/013
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:23:47. **Bukatu:** 00:25:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Jaunartzea egiteko ikasi behar izaten zituztenak. Urtero egiten zuten. Kaleko jantziekin egiten zuten, eskularru zuriekin. Ez zuten bereziki ospatzen. Aberatsik ez zen Adunan.

11. Mezara joan behar

- **Erref:** ADU-007/014
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:25:30. **Bukatu:** 00:27:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Ezkundu artean bezperetara joaten zen. Ez zen hain derrigorrezkoa; goizeko meza, bai. 6:30etarako Villabonara ere joan ohi ziren oinez. Adunan norberak bere aulkia izaten zuen elizan. Mutilak aurrealdean esertzen ziren; neska eta emakumeak atzean eta gizonezkoak koruan.

12. Garai bateko meza beldurgarriak

- **Erref:** ADU-007/015
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:27:58. **Bukatu:** 00:30:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Meza beldurgarriak ematen zituzten apaizek pulpitutik. Infernuari buruz aritzen ziren. Behin neska bat izututa joan zen etxera eta aita apaizarengana joan zen, alaba gehiago elizara joango ez zela esatera. Orain ez dute infernua aipatzen.

13. Haurren bataioa eta "elizan sartzea"

- **Erref:** ADU-007/016
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:30:26. **Bukatu:** 00:33:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Haur bat bataiatu gabe hiltzen bazen, linbora joaten zen eta aparte hilobiratzen zen, bedeinkatu gabeko lurretan. Horregatik jaio eta berehala bedeinkatzen ziren. Amak ez ziren bataiora joaten. "Elizan sartzea" ere ohitura zen: ama eta haurra dotore jantzi eta apaizak bedeinkazioa ematen zien. Ordura arte teila bat buruan ipinita bakarrik atera zitekeen ama etxetik.

14. Bataioak nola izaten ziren

- **Erref:** ADU-007/017
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:33:21. **Bukatu:** 00:35:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Haurrak elizatik kanpo bataiatzen ziren eta ondoren eramaten ziren pontera. Bataiatu gabe ezin ziren elizan sartu. Ura eta gatzarekin bedeinkatzen ziren.

15. Ezkontzako prestaketak

- **Erref:** ADU-007/020
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:37:18. **Bukatu:** 00:40:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

30 urterekin ezkondu zen. Etxean ospatu zuten, Adunan. Soineko beltza janzten zen orduan. Orrazkera berak egin zuen etxean, ile-apaindegira joan gabe. Makillatu ere gutxi egiten ziren. Belarritako berriak eramane zituen. Arreoan altzari batzuk eta izarak ekarri zituen.

16. "Gure Etxea" taberna

- **Erref:** ADU-007/021
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:40:37. **Bukatu:** 00:44:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Ezkondu eta segituan "Gure Etxea"-ra joan zen bizitzera. Behealdean taberna zeukan eta sukaldean aritzen zen bera. Bezeroek zer eskatzen zuten. Noizean behin afariak ematea tokatzen zen. Eguberrian bisigua eta angulak ohikoak ziren. Edateko eskatzen zutena.

17. Emakumeek edatea eta erretzea gaizki ikusia

- **Erref:** ADU-007/022
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:44:07. **Bukatu:** 00:45:55

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeak ez ziren tabernara sartzen. Festetan kanpoko mahaietan gehienez. Emakumeek erretzea ere gaizki ikusia zegoen.

18. Etxean sagardoa egiten zuten

- **Erref:** ADU-007/023
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:45:55. **Bukatu:** 00:48:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- Baserrria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagarra jotzeko makina erabiltzen zuten baina eskuz eragin behar izaten zitzaion. Oinutsik zapaltzen zuten sagarra eta zukua ateratzen zen, 'muztioa'. Dolarearen azpian jarritako barrikara erortzen zen. Ondoren beste barrikara pasa eta han fermentatu egiten zen, "zikina" goian geldituz.

19. Otorduetako ohiko janaria

- **Erref:** ADU-007/025
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:49:33. **Bukatu:** 00:53:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Sagardoa edatera ohituta zeuden txikitatik etxean. Ardoa ez zitzaion gustatzen. Ohiko bazkaria zopa eta babarrunak ziren. Afaltzeko haragia. Taloa eta esnea ere egunero jaten zuten. Igandetan garbantzuak edo paella. Egund berezietan oilaskoa eta frijituak jaten ziren. Postreak.</p>

20. Tolosaldeko euskara, politena beretzat

- **Erref:** ADU-007/027
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:54:10. **Bukatu:** 00:55:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Tolosatik gora hasten da beraien euskara aldatzen. Tolosaldeko euskara da politena beretzat.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com